

Gasoleo itxurako bertidoa izan zen atzo eguerdian Urumea ibaian, Zikuñaga parean

■ Antza denez isurketaren jatorria Karabeldik Zikuñaga aldera doan bide beltza deitzen dena hartu eta 200 bat metrotara lokalizatu dute ■ Ikerketa martxan dago.

ATZO eguerdiko 12:30ak aldera isurketa (bertidoa) izan zen Urumea ibaian. Isurketa tokian bertan izan ziren Udaltzaingoa, Ertzantza eta Udaletxeko Ingurugiro teknikaria ere eta antza denez isurketaren jatorria Karabeldik Zikuñaga aldera doan bide beltza deitzen dena hartu eta handik 200 bat metrotara lokalizatu dute.

Bai Zikuñaga eta baita Karabel inguruan ere nabarmena zen atzo Urumea ibaitik zetorren gasoleo usaia, eta itxuraz ere olio tankerako bertidoa zen ikusi zitekeena.



Karabelgo zubitik ikusi zitekeen isuriaren etorria, baita arratsaldean ere.

Ikerketa martxan

Udaltzaingoa adierazita-koaren arabera herritarren dei asko jaso ziren atzo isuria bazela esateko. Jakin orduko bertara hurbildu ziren bai Udaltzaingoa, bai Udaletxeko Ingurugiro Teknikaria eta baita Ertzantza ere. Isuriaren nondik norakoak argitzeko eta ikerketa martxan dago. □

HERRITARREN DEIAK

Herritarren dei asko jaso ziren atzo isuria bazela esateko. Gasoleo usaina haundia baitzegoen inguruetan.



Gasoleo itxura eta usaineko isuria zen.

BERTSOLATA

Xabier Legarreta txapeldun

XABIER Legarretak irabazi zuen asteazkenean Txapelketa azkarra. Txapela Unai Agirrek jarri zion, azken txapeldunak. Bigarren Joxe Luis Urdangarin gelditu zen, eta beste bi finalistak Estitxu Eizagirre eta Joxe Angel Aranburu izan ziren. Kaxkoko tabernetan jokatu zen eta giro polita sortu zen.

Bertso Latako azken ekitaldiak, gaur arratsaldean erronda eta Igande eguerdian kale antzerkia izango dira. □



Xabier eta Angel lehen saioan gaia entzuten.

FUTBOLA

Reala-Añorga Labaien Memorialeko finala gaur Zubipen

REALAK eta Añorgak jokatu dute gaur, ostirala, Zubipen Labaien Memorialeko finala, 17:30tan. Aurretik, berriz, Hernanik eta Lengokoak taldeek hiru-laugarren postua jokatu dute, 15:30etan. □

Kontzentrazioa eta firma biltzea gaur

ETXERAT elkarteak kontzentrazioa egingo du gaur, 20:00etan *Denon artean euskal presoak Euskal Herrira* lemarekin. Etxeratek hernaniarrei eskatu die aldarrikapen horrekin bat egiteko. Horretaz gain, eskaera berarekin Etxerat firma biltzen ere arituko da gaur 19:00etatik 21:00etara, Kale Nagusia eta Karkabako kruzean. Dagoeneko 500 sinadura bildu ditu. □

Urte Zaharreko Erronda gaur

OHITURA Zaharrak Abesbatzak antolatuta Urte Zaharreko Erronda egingo da gaur arratsaldean. "Herriko kaleetan barrena, urteari koplak, kantu eta bertsoz agur esateko asmoz gurekin bat egin dezagun gonbidatzen zaitugu" adierazi du Ohitura Zaharrak Abesbatzak. Arratsaldeko 17:15-etan aterako dira trikitixa eta guzti Udaletxeko arkupeetatik. □

ERREMONTEA

Faustino Torneoko finalera nor doan erabaki daiteke

FAUSTINO Torneoko finalera zein bikote doan erabaki daiteke asteburu honetan, semifinaletako bigarren txandako partiduetan. Gaur Galarretan Zeberio II-Urrutiak Juaristi eta Lizasoren kontra jokatu dute partidua. Bestetik bihar, Euskalen, Altuna II-Etxabe Ezkurra-Badiolaren kontra arituko dira. □

Bihar, Urte Berri eguna ez dago Kronikarik

URRATS

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564 - HERNANI

LEOKA TABERNA

Kardaberaz 3, HERNANI

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

HORTZ KLINIKA
- Oiarbide - Otxoa -

Orain helbide berrian aurkituko gaituzu:
ORKOLAGA 3 - 5 behe - Tel.: 943 55 76 53

Hernaniko Cuevas farmaziak egingo du gaueko guardia urte osoan, bihar gauetik

■ Buruntzaldeko farmaziek gaueko guardia zentralizatu egin dute eta Chucla-Cuevasek emango du gauero zerbitzu hori, larunbat gauetik aurrera.

BURUNTZALDEKO farma-
ziek gaueko guardia zerbitzua
farmazia bakar batean bildu
dute, urtarrilaren 1etik aurrera
(urtarrilaren 1a barne). Zerbitzu
hori Hernaniko Chucla-Cuevas
farmaziak emango du gauero-
gauero, 22:00etatik 09:00etara.
Zerbitzu horrek Andoain, La-
sarte, Usurbil, Urnieta, Hernani
eta Astigarraga biltzen ditu.
Cuevas farmazia Plaza Berrian
dago, Kardaberaz 48, 943-
551793.

Farmaziek adierazi dute
gaueko guardia zentralizatzeko
sistema berri hau jendearentzat
aurrekoa baino egokiagoa dela,
gaueko guardia zerbitzua beti
leku berean izanda jendeak
jakineko farmazira jotzeko
aukera duelako orain.

Sistema berri hau dagoene-
ko Donostian martxan da eta
farmazeutikoen esanetan beze-
roa gustora dago fun-
tzionamendu berriarekin.

Besteek ere nahi zuten

Gaueko guardia Hernanin
zentralizatzea ez da, itxura
denez, hain erraza izan. Zen-
bait herrik ere beregain hartu
nahi zuen gaueko guardietako
zerbitzua, ondoko herrira
joan beharrik ez izateko.
Baina, azkenean, Hernani



Cuevas farmaziko farmazeutikoak.


eskualdeko zentro izateak,
Osasun zentroa bertan izateak
eta farmaziaren egokierak
agindu dute erabakian.

Gaueko guardia zentrali-
zatu bada ere, egunekoak
txandan-txandan jarraituko
du, orain arte bezalaxe. □

ZINEA BITERIN

'Bailamos' eta 'Vacaciones en familia' pelikulak asteburuan

HELDUENTZAT *Bailamos*
pelikula botako dute astebu-
ruan Biterin: larunbatean
19:30etan eta 22:30etan eta
igandean 19:30etan. Hau-
rrentzat aldiz, *Vacaciones en*
familia filmea botako dute:
igandean 17:00etan. □



YONE
boutique
Kale Nagusia 63

Aurtengo
Gabonetan

PREZIO BEREZIAK
• **%20**
deskontua



Riojanos taberna parean dago elkartasun denda.

Elkartasun denda jarri dute eta irekita egongo da urtarrilaren 5a arte

ELKARTASUN denda jarri dute Kale Nagusian, Riojanos
parean, hilaren 5a arte. Bertan hainbat talderen materiala dago
salgai: galtzerdiak, agendak, sudaderak, kamisetak, besteak
beste. □

■ PLATER TIROA

San Silvestreko txapelketa gaur

TXANTXANGORRI elkarteak antolatuta San Silvestreko tiro
txapelketa izango da gaur. Sozioentzako tiraldia da. Izena ema-
teak 10 euro balio du eta arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara
egin behar da. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa:
943 333288
►DYA: 943 464622
►Anbulatorioa:
943 006666
►Jokalarri anonimoak:
943 331103
►Alkoholiko anonimoak:
943 331103

✚ FARMAZIAK

OSTIRALA

►Egunez: Bilbao-Sagas
Urbietan 7
☎ 943 552941

►Gauetz: Bilbao-Sagas.
Urbietan 7
☎ 943 552941

LARUNBATA

►Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892

►Gauetz: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

IRAGARKI MERKEAK

Emakume batek pisua behar du alokairuan Hernanin. **690 39 45 01**

Emakume bat behar dugu matrimonio bat zaindu eta etxeko lanak egiteko.
Interesatuak deitu: **943 552665**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berte-
brala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

ETXE BERRI TABERNA



EtxeBerri 2 ☎ 943551267

Eguneroko menua
Asteburutan
Menu berezia
Pintxo betetako barra
Pintxo bero eta hotzak
Kazuelitak

Urte zahar, gauean
KOTILOI FESTA
Zatoz zu ere!

Zorionak eta
urte berri on!

TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

ANEXO

Merkatuko marka onenak
prezio onenean,
beti bezala,
zure etxetik gertu.



35 urte zure zerbitzura

Eguberri jai zoriontsuak
eta urte berri on!

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI



URGASKA, S.L.

Gas instalakuntza
Material salmenta

* Asistentzia tekniko,
gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano
eta naturala: mantenua
* Iturgintza

Aristizabal 9 Behea
Tel.: 943 33 37 40

URTE BERRI ON!

ILEA PAINDEGIA
Arantxa eta Ixiar Larrañaga
Nafar Kalea 14
Hernani 20.120
943 33 24 41

Kulunka



Denda - Tailerra

Aurtengo eguberrietan oparirik
berezienak Euskal Herriko artisauek
bihotz-bihotzez eginak

Tapizeria eta Zaharberritze lantegia

Izpizua, 1 - Tel. 943 55 08 83
kulunka@gabiltza.org